1.2.4. Txikibarren

TESTUAREN DESKRIPZIOA	
Testuaren izenburua:	TXIKIBARREN
Erabilera esparrua:	PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK
Testuaren generoa:	INKESTA ALDIZKARI DIGITALEAN
Iturria:	INTERNET (MOLDATUTA)

Hurrengo testua irakurri eta galderei erantzun.

Biloba	?	Amona
Boing katea gustatzen zait, mamazki bizidunak ematen dituztelako.	**Telebistako zein saio gustatzen zaizu gehien?**	Telesailak ikustea gustatzen zait.
Ez dut izenburua gogoratzen. Geronimo Stiltonen liburuak gustatzen zaizkit.	**Irakurri duzun azken liburua?**	*"Lo que el viento se llevó"* irakurtzen ari naiz orain. Etxean ez dut astirik izaten, baina plazan gustura irakurtzen dut.
Titanic etxean atzean dagoen parkea. Han egaten gara lagunekin.	**Elgoibarko zein leku gustatzen zaizu gehien?**	Plaza. Elgoibarko lekurik politena iruditzen zait.
Bai, futbolean jokatzen dut bereziki. Athletic zalea naiz.	**Egiten duzu kirolik?**	Bai, *zumba* egiten dut. Apur bat galduta ibiltzen naiz, baina gustura.
Futbol zelaia berria egitea. Orain hasi dira obrak eta ondo geratuko da.	**Zer eskatuko zenioke Elgoibarko alkateari?**	Urazandirako igogailuren bat. Auzo horretan senideak ditut eta uste dut pixka bat lagata dagoela.
Elurral Elur pilotak egin eta lagunekin jolasten asa onda pasatzen dut.	**Elurra ala eguzkia nahiago duzu?**	Eguzkia. Niri elurra ez zait inoiz gustatu, umetan ere ez.
Norbaitek sustoa ematen didanean beldurtu egiten naiz.	**Zerk ematen dizu beldurra?**	Errepideak. Etxekoak bidaian joaten direnean kezkatuta egoten naiz.
Futboleko albistenen bat. Athletic-ek liga irabazi duela entzutea onda egongo litzateke.	**Irratia piztean. Zein albiste entzun nahiko zenuke?**	Irratian ez ditut albisteak entzuten, musika entzutea gustatzen zait. Etxeko lanak egiteko beti jartzen dut musika.

Barren Elgoibarko aldizkari digitala (Moldatuta)

LIVEWORKSHEETS

01

Zer nolako programak ikusten dituzte telebistan?

A. Kirolak.

B. Txapelketak.

C. Denbora pasatzeko programak.

D. Albisteak edo informazioa ematen dituztenak.

02

Kirola egiten al dute?

A. Bai, biek.

B. Bai, futbola.

C. Ez; galduta dabiltza gai horretan.

D. Zaleak dira baina haiek ez dute egiten.

03

Bilobak futbol zelai berria nahi du eta amonak igogailu bat. Nori eskatuko liokete?

A. Familiari.

B. Auzoko elkarteari.

C. Elgoibarko alkateari.

D. Elgoibarko bizilagunei.

LIVEWORKSHEETS

04

Zelako informazioa ematen da testuan?

A. Albisteak.

B. Iritzi pertsonalak.

C. Gai batzuei buruzko azalpenak.

D. Gai batzuei buruz alde edo aurkako arrazoiak.

05

Erreparaiozu bi argazkien artean dagoen galdera ikurrari. Zer adierazten du?

A. Zer erantzungo duten ez dakigula.

B. Oso erantzun harrigarriak eman dituztela.

C. Iraitzek eta Belenek ez dakitela zer erantzun.

D. Asmatu behar dugula nork egin duen galdetegia.

06

Zure ustez, zertarako egin dizkiete galderak ume bati eta amona bati?

A. Adineko jendea kirola egiten animatzeko.

B. Herritarren zaletasunen zerrenda osatzeko.

C. Adin desberdinetako pertsonen interesak azaltzeko.

D. Familiako kideen arteko desadostasunak agerian uzteko.

LIVEWORKSHEETS

07

Hauetariko zeintzuk gai jorratu dute galderak egitean? Klikatu 3 aukera egokiak.

GAIAK	
Interesak	
Musika	
Nahiak	
Familia	
Gustuak	
Ikasketak	

LIVEWORKSHEETS